

## **UDALEKU IREKIAK ETA KIROL UDALEKUAK COVID-19 PROTOKOLOA**

Dokumentu honek Alegiako Udalak 2021eko udan haurrentzat antolatutako udalekuak garatzeko hartuko dituen neurriak jasotzen ditu. Dokumentuaren hartzaileak ekintza horietako parte hartzaileak eta beren legezko tutoreak dira.

### **1. Kutsatzeen kontrola eta prebentzioa**

- Alegiako Udala arduratuko da udalekuetako segurtasunaz. Horretarako, jarduera egingo den udal eraikinetan, kartelak eta informazio orriak egongo dira, segurtasun portaera eta distantzia egokiak, higiene neurriak, etab. gogorarazteko.

- Parte hartzaileek eta beren legezko tutoreek beren gain hartuko dute COVID-19aren aurrean duten egoeraren erantzukizuna; hala, parte hartzaileek ezingo dute udalekuetan parte hartu ondorengo egoeraren batean aurkitzen badira:

- ✓ COVID-19arekin lotutako sintomak baditu (sukarra, eztula, giharretako mina, bularraldeko mina...),
- ✓ COVID-19aren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta badago.
- ✓ COVID-19aren diagnostikoa jaso duen batekin harreman estua izateagatik etxeko berrogeialdian badago.

Guraso edo tutorea dagokion arduradunarekin harremanetan jarriko da, egoeraren berri emateko, ondorengo telefono zenbakietara deituz: 943 654 698 edo 615 780 143.

- Udalekuen hasieran, higienerari eta portaerari buruzko prebentzio neurriak gogorarazteko saioak egingo dira, adin bakoitzera egokituta.

- Egunero, parte hartzaileei gorputz tenperatura hartuko zaie jarduera hasi aurretik. Ezingo dute jardueran parte hartu sukarra dutenek (>37,0°C).

- Parte hartzailearen batek COVID-19aren sintomak izango balitu, taldetik isolatuko da eta haren guraso edo tutoreei deituko zaie haren bila etor daitezen, horiek seme-alabarekin Osakidetzako zerbitzuetara jo dezaten eta haiek ezarritako protokoloak aplikatu ditzaten.

- Parte hartzaile edo begirale bati COVID-19a diagnostikatuz gero, Osakidetzako zerbitzuek ezarritako jarraibideak aplikatuko ditu Alegiako Udalak eta haur talde horren txanda bertan behera geratuko da. Horrelakorik gertatzen bada, udalak ez du dirua itzuliko.

## **2. Derrigorrezko higiene eta prebentzio neurri pertsonalak betetzea**

- 6 urtetik gorakoek, musukoa nahitaez erabili beharko dute. Parte hartzaile bakoitzak bere musukoa eraman beharko badu ere, udalekuetan erreserbako musukoak egongo dira, norberarena galdu, hautsi edo antzeko zerbait gertatuz gero ordezkatu ahal izateko.
- Eskuak sarri garbituko dira, horretarako parte hartzaileen eskura ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera edota gel hidroalkoholikoak egongo dira.
- Jardueran zehar parte hartzaileen artean 1,5 metroko distantzia gordeko da ahal den neurrian.

## **3. Udalekuetako izen-ematea**

- Udalekuetako izen-emate orokorra on-line egingo da, [www.alegia.eus](http://www.alegia.eus) webgunearen bitartez. Beharrezkoa den dokumentazioa webgune horretara igoko da, edo, salbuespen gisa, zuzenean kultur etxean banatuko da, 18:30etatik 20:00etara.
- Udalekuetan izena emateko, ezinbestekoa izango da parte hartzaileen guraso edo tutoreek parte hartzeko baldintzak, derrigorrezko higiene eta prebentzio neurri pertsonalak eta udalekuak egokitzeko hartutako neurriak onartzea. Horretarako, "baldintzen onarpen fitxa" bete eta sinatuta aurkeztu beharko da. Fitxa hau, emailaz bidaliko da eta udalekuen lehenengo egunean sinatuta ekarri beharko da.

## **4. Aurrez aurreko jarduerak egokitzea**

- Goizeko topaguneak herrian zehar banatuko dira jende pilaketak saihesteko.
- Parte hartzaile bakoitzak bere hamaiketako eta ur botila ekarri beharko du egunero.
- Talde bakoitza, gehienez, unean uneko neurriek agindutako ume kopuruz osatuta egongo da, bertako arduradun(ar)ekin.
- Jarduerak egiterako orduan, pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun distantzia errespetatzea ahalbidetzen duten ekintzak lehenetsiko dira.
- Aire zabaleko jarduerak lehenetsiko dira.
- Jarduerak espazio itxietan egiten direnean, espazioak aireztatuta egongo dira. Eta jarduera bukatu ondoren, espazioak desinfektatuko dira.
- Taldeak elkarrekin nahastea saihestuko da.

- Udalekuetako koordinatzaile eta begiraleek prestakuntza espezifikoa eta eguneratua jasoko dute COVID-19ari buruz, ezarritako neurri eta protokolo espezifikoei buruz eta laneko arriskuen prebentzioari buruz, dagokion osasun-agintaritzak ezarritakoarekin bat etorritik.